

IRUÑEA - 2025 UDABERRIA

**ASTINDU!
TOPAKETAK**

Ameslariendako ikastaroa



Karrikiri

**EUSKALDUNON
ERAGINTZA
BIZIBERRITZEKO
GIDATXOA**

AURKIBIDEA

00

Sar-Hitza

01

Hizkuntza komunitatean kokatu

02

Hizkuntza komunitatean loratu

03

Euskaldunok jendarteratu

SAR-HITZA

Esku artean duzun gidatxo hau ASTINDU! izeneko topaketen emaitza da: lau saioz, saiatu gara gure gogoak astintzen, euskarari etorkizun bat eskaintzeko asmoz, eta euskaldunon eragintza biziberritzeko xedez, Iruñeko testuingurua kontuan hartuz.

Horretarako, lau hizlarien inguruan josi ditugu gure galderak, eta gogoetak:

1. **Nondik gatzoz?** Txepetx, Fishman: iraultza soziolinguistikoetatik, gaur egungo komunitate estrategia eta jauzi politikoetara. *Jon Sarasua Maritxalar*
2. **Nola gaude (I)?** Hizkuntza transmisiotik sozializaziora: paradigma eta arau soziolinguistiko berrien bila. *Jone Miren Hernandez Garzia*
3. **Nola gaude (II)?** Dantza eta euskararen zirikorda: burujabetasuna eta ahalduntzea. *Aritz Ibañez Lusarreta*
4. **Nora goaz?** Astintzen gaituzten ametsak: euskaldunon komunitatearen etorkizuneko kontakizunak eta ekintzak. *Rosa Ramos Alfaro*

Kontakizunetan zentratu ditugu gure gogoetak, askotan ez dakigulako kontatzen dugun hori egokia zaigunez: ez gure buruarekiko, ez gure hizkuntza komunitatearekiko, ezta inguratzen gaituen jendartearekiko. Eta, egiari zor, batzuetan ez dakigulako ere zer kontatu, egoera soziolinguistiko korapilatsuetan tinkatuta gaudela. Asmoa ere dugu, kontakizunak biziberrituz bezala, gure tresnek eta ekintzek ere bide berriak hartu ahal izatea.

Utopia nagusi berri baten bila?

Saio hauetan argi geratu zaigun lehen ideia da, gaur egun ardazten gaituzten utopia nagusiek, ez digutela, dirudienez, hizkuntza-konponbiderik ekarriko: **ez askatasunak** (liberalismoraino ekarri gaituenak), **ez berdintasunak** (ezkerreko balio multzoak bildu dituenak), ez dute, gaur arte behintzat, jakin identitate kolektiboak kudeatzen, ez-eta hizkuntza aniztasuna gobernatzen.


Horretaz, zilegi zaigu, ameslari gisa bada ere, ondoko galdera hau pausatzea gure buruari: utopia nagusi berri baten bila joan behar ote dugu, jakingo duena **gramatika berri bat eratzen, identitate kolektiboak eta hizkuntza aniztasuna kudeatzeko?**

Oraindik berde bagaude ere halako galdera erraldoiari modu irmoan erantzuteko, garrantzitsua zaigu biziberritze urratsetan segitzea, orain arte egin den guztia kontuan hartuz eta besarkatuz; epe laburrak eta luzeagoak markatuz, garrantzitsua zaigu **hizkuntza komunitate estrategiak eta jauzi soziopolitikoak** uztartzea, etorkizuna emango digun estrategian.

Horregatik, hiru urrats nagusitan zedarritu dugu gidatxo hau: hizkuntza komunitatean kokatzea, hizkuntza komunitatean loratzea, eta euskaldunok jendarteratzea.



HIZKUNTZA KOMUNITATEAN KOKATU



AKTIBOA KONPLEXUDUNA
HIZTUN OSOA
PASIBOA AURKAKOA
IKASTUNA

Garrantzitsua da begiratzea zein izan den nire ibilbidea hizkuntza komunitatean: nondik euskaldundu naizen (**A etxetik, B ikastegitik**), eta **hiztun oso** (**BA, AB**) bilakatu ote naizen. Hau da, nire egunerokoan gai ote naizen esparru guztietan euskaraz egiteko.

EUSKALDUNA?

Euskalduna da euskara duena. Horrela gara kolektiboki definitzen: hizkuntzatik. Auto-definizio irekia da gurea: ez dugu kasu egiten jatorriari, bizitokiari, larru koloreari, generoari, sexualitateari, klaseari, erlijioari, etxean ala ikastegian ikasiari... *Natibismorik* ez: euskara baduzu, euskalduna zara!

Komeni zaigu hau ez itzultzea erdaraz ere definitzen garelarik: *soy euskaldun, je suis euskaldun*, hizkuntzaren aspektua baztertua izan ez dadin, *vasco* edo *basque* nozioekin bezala.

Zabalago, euskal hizkuntza komunitatea da euskararekin harremana duen jende multzoa, inguruko erdaldunak ere (ø) ukituz.

MOTIBAZIOA?

Hizkuntzaren ezagutzak ez du bere erabilera bermatzen: motibazioak du egiten hizkuntzarekiko eta bere biziberritzearekiko jarrerak garatuko ditugula, gure ibilbide eta ingurunean zehar. Txori arraroak badira ere, gogoratu euskararen biziberritzearen aurkako euskaldunak ere badaudela!

Ez gara hiztun estatiko: espazioen, egoeren eta pertsonen arabera, izan gaitezke hiztun aktibo, pasibo, edota konplexudunak ere bai. Gure jarrera orokorra zein den aztertzea ere lagungarri zaigu, aldatu nahi badugu.

Gure jarrera eta motibazioa, gure inguruneek ere baldintzatzen dute: zein aukera dut egunerokoan euskaraz egiteko?

GURE KORAPILOAK

Existentzialak, egunerokoak... denok dauzkagu euskaraz (ez) egiteko korapilo propioak... eta orokorrak!



MINORIZATUA VS MINORITARIOA

Euskara hizkuntza minoritarioa dela esaten digute, *lengua minoritaria*, *langue minoritaire*: hiztun gutxi, edo hiztunak galtzen dituen hizkuntza bat.

Baina nola gertatzen da hori? Bada, hizkuntza minorizatua garelako, *lengua minorizada*, *langue minorée*: bizi-espazio gutxikoa, edo bizi-espazioak galtzen dituen.

HIZKUNTZA PREKARITATEA

Butler-rek prekari(e)tatea eta prekaritatea bereizten ditu. Lehenengoa gizaki orori dagokio (zaugarritasuna); bigarrena gizarte antolaketak eta politikak eragiten dute.

Kontzeptua feminismotik ezagutu bada ere, hizkuntzari lotu daiteke, hegemoniak ezarri duen indarkeria sinboliko eta soziolinguistikoa kontuan hartuta.

AHALDUNTZEA & INTERSEKZIONALITATEA

Bizi ditugun hizkuntza-korapiloak ez dira, horretaz, modu arinean edo naturalean sortu: banalitate soziolinguistikoa bilakaera bat da. hegemoniak erreproduktzioarako dituen mekanismoak, bigarren mailakook ikustezin bihurtzeko estrategia.

Garrantzitsua zaigu, beraz, ahalduntze-bide eta ahalduntze-kontakizunak eratzea: adibidez, begirada intersekzionala ezinbestekoa da botere-adartzek nola funtzionatzen duten jakiteko, eta horiek kolektibo prekarizatuongan duten eragina antzemateko.

Modu berean, intersekzionalitatearekin lotutako teoria eta ikerkuntzak ezinbestekoak dira prekaritatearen mekanismoak azalaratzeko eta justizia soziala/soziolinguistikoa bultzatzeko, elkar eraginetik jarduteko.

HIZKUNTZA KOMUNITATEAN LORATU

FUNTZIO SOZIALAK

01.

Txepetx / Xamar

Garrantzitsua da, gure egunerokoan eta jendartean, ahal bezainbat funtzio sozial bete ahal izatea euskaraz: horrela ere gara loratzen gure hizkuntza komunitatean, maila pertsonaletik (pentsamendua, sentimendua) nazionalera (administrazioa, akademikoa, lurralde osoa), hainbat esparru betez euskaraz.



EUSKALKIAK VS EUSKARA BATUA

02.

Zenbat eztabaida (antzu?) euskalkien eta euskara batuaren inguruan! Bata hemengoa, edo benetakoa, bestea garbia, edo zuzena...

Euskalkia, presente dagoen herri edo lurraldeetan, eraginkorra da funtzio batzuk betetzeko euskaraz: pertsonala, lagunartekoa, lokala... Adierazkortasun eta berotasun handia dauka, hiztegi, jario eta estetika berezia, gertukoa, eskuragarria.

Euskara batua sortu zen funtzio sozial gehiago euskaraz betetzeko: lan mundu zabalagoa, nazionala... Batuak betetzen ez baditu, gaztelerak edo frantsesak egiten dituelako. Gainera, euskaldunoi kode komuna ematen digu, elkar ulertzeko, eta hizkuntza komunitate bezala ere sendoago izateko. Euskalkirik ez dagoen tokietan ere, gertuko funtzioak euskaraz betetzeko balio digu.

Euskalkiek eta batuak elkar osatzen dute, askatzaileak dira gu hiztun oso bilakarazteko!

GURE MOTIBAZIOAK

03.

Euskaldun bizitzeko gaur egungo testuinguru anitzetan, bost motibazio-mota zehaztu eta lotu daitezke:

- Fluxuarena: Euskalduna naiz, etxean euskaldun edo euskaltzale direlako, eta nik ere hautu hori egindakoa.
- Pragmatikoa: Euskalduna naiz, lan bat (hemen) aurkitzeko, edo bestelako interes oso konkretu batengatik (integrazteko, ligatzeko...).
- Mundu hobearena: Euskalduna naiz, mundu hobea amesten / lotzen dudalako euskararekin, eta gure biziberritzearekin.
- Balio itsasiarena: Euskalduna naiz, euskarak ematen didalako zerbait berezi / gehiago, beste hizkuntzek ematen ez didatena.
- Estetikoa: Euskalduna naiz, maite dudana estetika bati lotzen dudalako.

ZIRIKORDA BAT



Dantzan.eus

TRADIZIOA VS MODERNITATEA

Gure kultura eta hizkuntzaren arteko zirikorda funtsezkoa da euskaldun bezala loratzeko! Eztabaidek, ordea, tiratzen gaituzte guti balio diguten alorretara: zer den euskal kultura, zer den tradizioa edo modernitatea, edota profesional/amateur dikotomia...

The Beatles taldea 1960an sortu zen, Axuri Beltza dantza 1969an sortu zuten Arregik eta Urbeltzek: zergatik lehena modernoa litzateke, eta bigarrena tradizioa?

TRANSGRESIOA

Inauteriek gure gazteriari eskaintzen diote transgresiorako aukera: helduon munduari barre egitea, helduok haiengandik espero dugunari muzin egitea, eta gure hizkuntza komunitatean haien tokia hartzeko askatasuna! Libertigarri bezain sanogarri zaigu gazteak plaza hartzen laguntzea.

Kultur globalizatuak zein aukera eskaintzen die, ordea, transgresiorako? Tresna batzuk bai, baina horrez gain, gonbidapena ez ote da kontsumorako eta uniformizaziorako?

MUNDU-IKUSKERA


Zer biziartzen dit euskarak, beste hizkuntza hegemonikoek biziartzen ez didatena? Agian errazagoa genuke galdera horrekin erantzutea, hegemoniako erdaldun batek galdetzen digunean gure kultura definitzea.

Urbeltzek dio gure dantzaren indarra bere eternitatean datzala, eta bere xedea guk mundu egitea dela. Gure kulturak, hizkuntzari lotuta, dakar komunitatearen mundu ikuskera bat... baina, aldi berean, gure kultura eta hizkuntza bizitzeko eta biziartzeko modu asko, anitz, hanitz!



EUSKALDUNOK JENDARTERATU

EZAGUTZA



HERRIA
BURUJABETZA
OSPAKIZUNA
HOBEKUNTZA
LH + 2
MUNDUAN
BIRKOKAPENA
EKOLINGUISTIKA
BIZIKIDETZA

MOTIBAZIOA

GURE ANOMALIAREN ARNASGUNEAK

Fishmanek ekarri zigun Arnasgunearen kontzeptua: euskararen habitata, zaindu eta biziarazi beharrekoa, izan geografikoa (herri bat, auzo bat), zein sozio-funtzionala (bertso saio bat, ikastola bat, whatsapp talde bat).

Bizi ote gaitezke euskaraz, anglo-saxoien moduan? Ala euskaldun bizitzeak jarraitzen du anomalia izaten gure jendartean, eta hori elikatzeko arnasmuneak ere behar ditugu?

HIZKUNTZA IDEOLOGIAK

Jendarteratzean, baliteke hizkuntza ideologia ezberdinek talka egitea: adibidez, hegemoniatik askotan entzuten dugu hizkuntzek soilik komunikatzeko balio digutela, hori egia absolutua balitz bezala.

Euskaldunon mundu-ikuskeran, hizkuntzak egiten ere nau pertsona, egiten gaitu aldi berean komunitate eta unibertsal.

HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA

Hizkuntza ideologietan, garrantzia asko hartzen ari du hizkuntza sozializazioak: luzaz goitik beherako transmisioa izan bada ere paradigma nagusia, jendarte eremu guztietan gauzatzen den hizkuntza sozializazioaren paradigmak giltza gehiago ematen digu, bereziki erabilerari lotuta ditugun korapiloak begira.

Bizitzan zehar gertatzen diren aldaketak, mudantzak, kontuan hartuz bezala, ikuskera mikra eta azterketa kualitatiboak ere errazten ditu. Gogo-nahia, motibazioaren garrantzia azpimarratuz bezala, haur eta gazteen eragintza ere altxa dezake.

Hortik atera daitezke praktika zentzudunak, diskurtsoak eta afektuak uztartzeko espazio eta denborak. Gure hizkuntzaren alde sinbolikoa eta alde funtzionala uztartuz, identitate otzana eta subordinatua gainditzen duen komunitatea biziberritu dezakegu!

SEGMENTATU & AKTIBATU

URRUNEKOA	HASIBERRIA	ERRESPETUA DUENA	HUNKIA
Konbentzitu	Harrera egin	Kontuan hartu	Informatu
Axolagabea edo kontra den pertsona	Interesatua izan daitekeen pertsona	Pertsona irekia, aldekoa, engaiatua	Zuzenki hunkia (ingurumena)
Erronkei buruz informatu	Interesa sortu, gomita helarazi, lagundu	Aliatu, aldekotasuna landu	Aktibatu, ikastea lagundu
IKASTEN ARI DENA	KONPLEXUDUNA	HIZTUN PASIBOA	HIZTUN AKTIBOA
Balioa eman	Motibatu	Aktibatu	Babestu
Ikasten ari den pertsona, aktiboa edo pasiboa	Ulertzen duena baina mintzatzea zaila zaiona	Frantsesa hobesten duen pertsona	Pertsona kontzientea, aktibista
Motibatu, lagundu, sostengatu	Segurtatu, hobendun sentimendua kendu	Ohiturak aldatu, aktibatu	Aliatu, erabilera ahalbidetu

Plazara

Nori, nola, nondik mintzo gara?

Zer eta nola erantzungo diogu, euskal kultura definitzea eskatzen digun erdaldun hegemonikoari, zintzoki eskatu badigu ere? Definizioetan korapilatuko gara, ala lehenetsiko dugu azpimarratzea euskarak biziartzen digun guzti eta berezi hura?

Nola konbentzituko dugu euskaldun konplexudun edo pasiboa, arnaspuneak ez direla ghettoak eta baztertzailak? Eta nola demontre formulatuko dugu arnaspunearen kontzeptua erdaldunari: oxigeno burbuila, oasia, safe place-a, euspazioa?

Alegia, hau ez dela euskara hutsean, baina bai osoki euskaraz?

Garrantzitsua bilakatzen ari zaigu **kontakizunetan eskua (berriz) hartzea**. Postura aldaketa horretarako, lagungarri izan daiteke segmentazio finagoa egitea gure hizkuntza komunitate eta jendartean, aktibazioetan hobeki asmatzeko, eta dinamika eskuragarri bezain eraginkorrak eratzeke. Bakoitzaren beharrak hobeki ulertzeko, eta urratsak eginarazteko.

Kontakizunetatik, praktika berriak saiatuz. Horietarik bat: **komunikazio disimetrikoa**. Xede talde bakoitzari kontakizun bat zuzenduz, mezuak euskaraz zein erdaraz ezberdinduz, eta etorkizun euskaldun batzuetara gonbidatuz!





BIBLIOGRAFIA:

AGIRRE Lorea eta ESKISABEL Idurre,
Trikuia esnatu da, 2019 (Lisipe, Susa).

APODAKA Edu,
Identitatea eta anomalia, 2015 (Pamiela).

KASARES Paula,
Euskaldun hazi Nafarroan, 2013 (Jagon).

LUKU Antton,
Euskal Kultura?, 2009,(Pamiela).
Libertitzeaz, 2014 (Pamiela).

SARASUA Jon,
Biziaren hizkuntzaz, 1997 (Gara).
Hiztunpolisa, 2013 (Pamiela).

XAMAR,
Orekan, 2001 (Pamiela).
Biziaroak, 2024 (Pamiela).

www.karrikiri.eus
www.plazara.eus

EUSKARAZ
DANTZA GAITEZEN!